

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1992ko ekainaren 26an hasi da goizeko hamarretan Euskaltzaindiaren hileroko batzarrea. Barnegai orokorrak ikusteko bildu dira, J. Haritschelhar burua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charriton, X. Diharce, A. Irigoien, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak. J.L. Lizundia idazkariordea eta J.J. Zearreta ekonomi-eragilea, urgazleak.

Dagozkienetan egon dira, J.A. Aduriz, R. Badiola, A. Eguzkitza, B. Gandiaga, X. Kintana eta M. Zalbide, urgazleak.

J.L. Davant eta J. San Martin jaunek ezin etorria adierazi dute.

Zehaztasun bat eginik onartu da maiatzeko batzar-agiria.

I. Barnegai orokorrak

Azkeneko batzarrean euskaltzainen hileroko bilkurari buruz onartutakoa kon-tuan izanik, eskuarteko gaiekin hasi da goizeko bilera.

UEUko Kazetaritza sailak bidalitako gomita ikusi da lehenik. Euskal Unibersitateak bete beharko lukeen funtzioa eta ukitu behar lukeen esparruaz mintzatzeko mintegi batera dei egiten dio Euskaltzaindiari, beste elkargo batzuen artean. Gutuna berandu iritsi da eta gaia aztertzeke astirik ezean, ez da inor izendatu.

Literatur sorketako 1992 saria emango duen epaimahairako ordezkariaren izena eskatu dute Madrilgo Kultura Ministeriotik. Epe laburreko gauza zenez, Zuzendaritzak E. Knörr izendatu zuen.

Oihenarten IV. mendeurrena dela-eta izendatua den batzordeak Baionan ekainaren bian egindako bileraren berri eman da, eta Biltzarrean parte hartuko dutenek betebeharrekoen oinarriak jakinarazi dira.

Datorren hileko batzarrea Gernikan egingo da, uztailaren 24an, bertan aurkeztuko delarik L. Villasanteren omenez argitaratu berria den IKER-6 liburua.

J.A. Arana Martija jaunak aurreratu duenez, Gernikako Udalak J.A. Pradera Diputatu Nagusi gernikarraren bidez, L. Villasante euskaltzainburu ohia *Bizkaiko Seme Bikain* izendatzea eskatuko dio Bizkaiko Diputazioari.

A. Irigoien jaunak txosten bat azaldu du "Grekoa, latina, kultura-mundua eta euskara" izenburua daramana. Pertsona zerrenda luze batek izenpeturik dator izkribua.

Eusko Ikaskuntzako buru izendatua izan da Goio Monreal jauna eta Euskaltzaindiaren izenean zorionak helaraziko zaizkio.

Zuzendaritza ekainaren 2an bildu zela Baionan, aditzera eman du euskaltzainburuak. Pirenees Atlantikeko Kontseilu Orokorren zuzendaria den Bayrou jaunarekin egon da eguerdi aurrean. Bi gauza eskatu zaizkio bereziki: Kontseilu Orokorrek Euskaltzaindia ofizialki onar dezan, eta dirulaguntza eman diezaion. Lehen puntuari buruz Bayrou jauna baikor agertu da eta hitz onak esan ditu, bera ere bearnesa dela ez ahanzteko, aditzera ematen zuelarik.

Dirulaguntzari buruz ez du hainbeste itxaropen erakutsi. Gizon irekia da eta Euskaltzaindiarekin biltzeko xedea agertu du. Iraileko Biltzarreko lehen ekintzetan Maulen izango dela ere hitz eman du.

Idazka aditzera eman du, J.M. Rodríguez Ochoa Nafarroako Gobernuan Hizkuntza Politikarako zuzendaria prest dagoela P. Yrizarrek Nafarroako aditzari buruz egindako liburukiak bere aurrekontuetatik aurten bertan argitaratzeko. Diruzaintza egongo da berarekin harremanetan.

Nafarroa izena ofizialki onartzeko legezko urratsak eman nahi ditu, bestalde, J.M. Rodríguez Ochoa jaunak eta Euskaltzaindiaren agiria eskatzen du hitzari dagozkion zehaztasunekin. Onomastikako batzordeak erantzungo dio.

Iruñeko Ordezkaritzako bulego batean paretan lehertu dela, aditzera eman du J.M. Satrustegik. Ez dirudi arriskatsua denik oraingoz baina jarraipen bat eskatzen du.

Atzo banatu ziren Bilbao Bizkaia Kutxaren kultur aretoan, Toribio Altzaga, Felipe Arrese y Beitia eta M. Zarate 1991ko lan sarituen liburuak. Hots, L. Haranburu Altunaren *St. Cyran Jainkoa gorderik* izeneko antzerkia; Xabier Leteren *Zentzu antzaldatuena poemategia*; eta *Agosti Chahoren bizitza* gaitzat harturik, Patri Urkizuren saiakera lana. J.M. Lekuona mintzatu zen Euskaltzaindiaren izenean, idazlearen garrantzia euskararen normalizapenean azpimarratuz. 1992ko lehiaketaren oinarriak banatu ziren gero.

II. Akademi gaiak

Euskara Batuko batzordeak aurkeztutako gaiak eztabaidatu aurretik, prozedurazko arazoak sortu dira. P. Salaburuk Euskara Batuko batzordearen izenean galdetu du lehenik, proposamenen bozketa euskaltzainek inoren aurrean egin behar ote duten. Bigarren galderak dio ea batasunaren bidean aurrera egin behar den ala ez.

Eztabaida sortu da gero. A. Irigoienek dio konsentsua behar dela erabakia hartzeko, eta konsentsurik ez dagoenean kontuz ibili behar dela. Prozedura aipatu da, hala nola epeak eta gehiengoaren indarra. Batasunaren helburua sortzetik duela Euskaltzaindial. Erabakiak gehiengoz hartu ondoren eragozpenak prentsan azaltzea salatu da, Euskaltzaindiaren lanek zabalkunde gutxi dutelarik. Horrek jendea nahasi besterik ez duela egiten, esan da.

Komunikabideen alorra ez da zaindu, noski, behar bezala. Hala ere, 25 urteotan urrats haundiak eman dira eta hartutako erabakiak betetzen direla ikusten da. Nola nahi ere, gizartearen sentiberatasuna, euskalkiak eta ahozkotasuna kontutan hartu beharra aipatu da. Aurkako iritzia dituztenak barnean egotea komeni litzateke.

Hasierako puntuei erantzunez, batuaren bidean orain arte bezala jarraitzea onartu da.

Bozketari buruz, eztabaidarik ez badago, besterik gabe ontzat emango da proposamena. Adostasunik ezean, hurrengo batzarreko utziko da bozketa.

Prentsarekiko loturari dagokionez datorren batzarre batean aztertuko da arazoa.

Bozketa

Arazi/erazi aditz “erazleak” direla-eta, Euskara Batuko batzordeak lehen forma onartzea proposatzen du. Azken batzarrean ikusi zen gai hau eta egun bozkatzeko utzi zen.

Hemezortzi euskaltzain daude bertan eta J.L. Davantek E. Larrerri eman dio idatziz bere boza. Hemezortzi dira, beraz, txartel baliagarriak.

A. Irigoien euskaltzainak ez du bozketa honetan parterik hartu. Hemezortzian geratu da beraz bozkatzaileen kopurua, eta emaitza honako hau izan da: 16 txartel proposamenaren alde, eta 2 zuri.

Horrenbestez, *arazi* aldaera onartu da, salbuespen bakarra *adierazi* delarik.

Hitz elkartuak

Ekaineko bilera honetan bozkatzeko utzi zen LEF batzordeko puntu bakarra, zera da: hitz elkartuen lehen osagaiak *-ia* amaiera duenean, *-a* hori galdu ala ez. M. Zalbidek txosten bat irakurri du arduradunen ikuspegia zehaztuz.

Eztabaidaren ondoren erabakiorra ez den asmoen neurketako bozketa bat egin da. Galdera, hau izan da: *-a* galdu ala ez, *biologi azterketa*, ala *biologia azterketa* esan behar den gomendatzeko. Euskaltzainen joera hau sumatzen da:

<i>a</i> galtzearen alde.	9
<i>a</i> gordetzearen alde	9
txartel zuriak.	1

Bi jokabideak onartzea izango litzateke azken emaitza.

Gai honi buruz azken zehaztasun bat aipatu du euskaltzainburuak, hots, batzordeak aurkeztutako *-a* galtzearen aldeko proposamenari lehentasuna eman behar zaion ala ez.

Erabakiorra ez den bozketa egin da berriro, ondore hauekin:

11 bai
5 ez
3 zuri

Lehentasuna *-a* kentzeari ematearen alde agertu da beraz gehiengoa. Uztaileko batzarrean bozkatuko da azken erabakia.

Eta besterik gabe amaitutzat eman da batzarrea, eguerdiko ordubatean Azkue Bibliotekaren estreinatze edo mustutzea egingo baita.

J. Haritschelhar
euskaltzainburua

J.M. Satrustegi
idazkaria